

EGUESIBARKO LIBURUTEGIAK ATSEGINEZ GONBIDATZEN ZAITUZTE “AURKITU LIBURU GALDUA” LEHIAKETAN PARTE HARTZERA

Parte-hartzaileek aurkitu beharko dute zer libururi eta egileri dagozkien literatur pasarte aukeratuak. Sariak asmatzaileen artean zozketatuko dira.

1. Parte-hartzaileak:

Eguesibarren erroldatuta dauden adin nagusiko pertsona guztiak aurkezten ahalko dira.

2. Epeak:

Lehiaketan parte hartzeko, interesdunek posta elektronikoz bidali beharko dituzte erantzunak biblioteca-liburutegiaolaz@egues.es helbidera edo Olazko eta Sarrigurengo Liburutegietara eramanez, zerbitzua zabalik dagoen orduetan, apirilaren 18ra arte, betiere izen-abizenak, NANA, telefonoa eta helbide elektronikoa adierazita.

3. Epaimahaia:

Epaimahaia Kultura zinegotziak eta Liburutegi zerbitzuko bi teknikari edo beraiek izendatutako ordezkariak osatuko dute.

4. Sariak:

Bi sari banatuko dira; haietako bakoitza 45 euroko txartela izanen da Eguesibarko edozein liburu-dendatan trukatzeko: Eguzki edo La Valeta. Parte-hartzaile batzuek asmatzen badute zer libururi eta egileri dagozkien literatur pasarte guztiak, zozketa eginen da irabazlea nor den ebazteko.

- **Sari banaketa:** Sariak apirilaren 23ean banatuko dira, 19:00ak inguruan, Olazko Liburutegian, Udalak Liburuaren Egunaren karira antolatuko duen emanaldiaren ondoren.

5. Baldintza orokorrak:

Eguesibarko Udalak ikusten badu edozein parte-hartzailek lehiaketaren baldintzak betetzen ez dituela edo lehiaketa gaizki erabiltzen edo gehiegikeriaz erabiltzen ari dela, eskubidea izanen du hura baztertzeko.

6. Datu pertsonalen babesa:

Parte-hartzaileek baimena ematen dute beren datu pertsonalak Eguesibarko Udalaren fitxategian sartzeko. Datuak lehiaketa hau kudeatzeko, irabazleekin harremanetan jartzeko eta lehiaketarekin zerikusia duen beste edozein gairi erantzuteko baizik ez dira erabiliko.

Parte-hartzaileek beren informazio pertsonalaren egiazkotasuna, zehaztasuna, indarraldia eta benetakotasuna bermatu eta erantzunen dute.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubideak baliatzeko, idatzi bat bidali beharko da biblioteca-liburutegiaolaz@egues.es helbidera, NANaren edo identifikazio-agiriaren koplekin batera.

7. Beste arau batzuk:

Lehiaketa honetan parte hartze hutsak esan nahi du oinarri hauek osorik onartzen direla, eta Eguesibarko Udalak lehiaketa honetatik eratorritako edozein gairi buruz duen interpretazio-irizpidea onartzen dela. Beraz, lehiaketa honen oinarriak onartzen ez duen parte-hartzaile oro bazterturik geldituko da, eta, horren ondorioz, Eguesibarko Udalak ez du harekin inolako betebeharririk izanen.

Eguesibarko Udalak beretzat gordetzen du lehiaketa honen mekanikan edo funtzionamenduan edozein unetan aldaketak egiteko eta/edo alde zuzenetik lehiaketa bertan behera uzteko eskubidea, baldin eta bidezko arrazoi batengatik beharrezkoa bada, eta horrek ez du inolako erantzukizunik sortuko. Hala ere, aldaketa horiek webgunearen bidez jakinaraziko dira behar bezala, edo egokitzat jotzen dituen bideen bitartez. Ahal den guztia eginen da, ezein aldaketak parte-hartzaile batzuei kalte egin ez diezaien beste batzuen aldean.

*“Aurkitu liburu galdua” lehiaketa
2024ko edizioa*